

**GERRA ETA HAREN ONDORIOAK**  
**ERROMATAR INPERIOAN:**  
**TRAJANOREN ZUTABEA**



**Egilea:** Mikel Ezkurra Kaltzada.

**Zuzendaria:** Elena Torreagaray Pagola.

Historiako Gradua.

Gradu Amaierako Lana.

2021-2022.

Letren Fakultatea.

## **Laburpena:**

Erromatar Inperioan gudak izan zitzakeen ondorioak ulertzea da lan honen helburu nagusia. Horretarako, Trajanoren Daziako Kanpainiak hartuko ditugu aztergai, K.o. II. mendeko Europa ekialdean kokatuz<sup>1</sup>. Bertan, gatazka belikoaren arrazoiak eta nondik norakoak ulertzen ahaleginduko gara eta, batez ere, Trajanoren zutabea iturri nagusiz hartuz ondorioak zerrendatu, sailkatu eta azalduko ditugu, historiografia modernoa eta iturri literario klasikoak erabiliz.

## **Abstract:**

The main purpose of this essay is to understand the consequences that war had in the Roman Empire. In order to analyse that, we will focus on Trajan's Dacian Wars, located in Eastern Europe at the beginning of the 2nd century. Based on that conflict we will try to understand the reasons and the development of the war, using Trajan's columns as the main source to classify and explain the consequences of it. At the same time, we will use modern bibliography and classic literary sources to complete the information needed to fulfill our objectives.

---

<sup>1</sup> Aurrerantzean, kontrakoa esaten ez bada, data guztiak K.o. izango dira.

## **Aurkibidea:**

1. Sarrera.	3
2. Historiografia.	3
3. Iturriak:	4
3.1. Iturri literarioak.	4
3.2. Iturri arkeologiko eta ikonografikoak. Foroa eta zutabea.	5
4. Testuinguru historikoa. Daziako Gerra (85-106).	7
4.1. Domizianoren kanpainia (85-89).	7
4.2. Lehenengo daziar kanpainia (101-102).	7
4.3. Bigarren kanpainia (105-106).	8
5. Gerraren ondorioak Trajanoren zutabeen:	9
5.1. Ondorio politikoak.	10
5.2. Ondorio sozialak.	13
5.3. Ondorio ekonomikoak.	22
6. Konklusio orokorrak.	25
7. Bibliografia:	27
7.1. Iturri literarioak.	27
7.2. Gaur egungo bibliografia.	27
7.3. Webgrafia.	28
8. Eranskinak:	29
8.1. Mapak.	29
8.2. Irudiak.	30

## **1. Sarrera:**

Lan honen birtartez ahaleginduko gara Erromatar Inperioan gudaren ondorio nagusiak ulertzen. Konklusio hain orokorrak atera ahal izateko guda eta une konkretu batetik abiatuko gara, gero orokortu ahal izateko. Kasu honetan Trajanoren Daziako Kanpainiak hartuko ditugu aztergai. Honek, II. mendearen hasieran kokatzen gaitu, Europa ekialdean, Danubio eta Itsaso Beltza marko bezala hartuz (Soria Molina, 2020: 155-156).

Erromatar Inperioa aztertzerako orduan joera oso orokorra izan da, batez ere, historiografia oso militarista eraikitzea. Honek badu nolabaiteko logika, batez ere kontuan hartzen badugu Inperioaren izaera belikoa eta gizarteak zuen dualtasun zibil-militarra. Are gehiago, pentsa dezakegu gudaren ondorioak ikuspuntu militarista honek planteatzen dizkigun ideiei hertsiki loturik egon behar dutela. Hala ere, badaude ondorio mota desberdinak, gure iturri nagusia izango den Trajanoren zutabearen agertzen direnak, eta planteamendu belizista huts hauengandik ihes egiten dutenak. Lan honetan ideia hauek lantzen saiatuko gara. Laburbilduz, lan honek bilatzen duena da gudaren ondorio guztiak, edo gehienak, biltzea eta Trajanoren zutabearen ikus dezakegunarekin alderatzea, planteamendu solik militarista hau atzean utziz.

## **2. Historiografia:**

Sarreraren ikusi dugun moduan, Erromatar Inperioa inguratzen duen historiografiak orokorrean kutsu oso belikoa du, honen adibide ditugu Goldsworthy<sup>2</sup> edo Osgood<sup>3</sup>. Gure gaia gudarekin hain loturik egonda, oso zaila da ildo militarista honetatik aldentzea, baina ondorioak lantzeko bestelako historiografia erabili behar izan dugu, hau aulde batera utziz. Hala ere, ez dugu historiografia beliko hau inolaz ere gutxietsi behar. Izan ere, ezinbestekoa da gatazken garapena eta arrazoiak ulertzea ondorioek zentzua izan dezaten. Gauzak horrela, oso baliagarria egin zaigu Soria Molinaren lana, Trajano eta Europa Ekialdean aditua. Autore honek xehetasun handiz deskribatu izan ditu gertakari nagusiak eta zenbait ondoriotarako bidea ireki digu, batez ere gudarekin lotura argiena izan dezaketenekin, hala nola guda gatibuen kasua edo deportatuena. Horrez gain, aipagarria dugun beste autoreetako bat Dillon

---

<sup>2</sup>Goldsworthy, A. (1996): *The Roman Army at War 100 b.C-200 A.D.* Oxford University Press. Oxford.

<sup>3</sup>Osgood, J. (2019): *Rome and the Making of a World State, 150 BCE–20 CE.* Cambridge University Press. Cambridge.



dugu. Bibliografia militarista honek emakumeen egitekoa alde batera uzteko joera du, eta honek, biztanleria erdiaren historia soilik kontatzera eramaten gaitu. Dillonen lana ezinbestekoa izan da gizartearen zati honek zutabearen duen esanahia ulertzeko, eta beraz, gudan izan zuten funtzioa eta honek dakartzan ondorioak ulertzeko.

Bestalde, zutabearen inguruko informazioa oso aberasgarria da. Lehenengo, zutabearen eraikuntzaren inguruko bibliografia oso anitza da. Alde teknikoa lantzeko Lancasterren lana erabili dugu. Logistika eta hornikuntzaren aldetik, Pensabene eta Domingoren argitalpenaz baliatu gara. Bigarren, zutabea ikertzen duten plataforma digital desberdinak daude, zutabea bere osotasunean ikusten laguntzen digutenak. Hala ere, faltan botatzen dira halako azalpenak idatzirik biltzen dituzten lan desberdinak, irudiak gaika antolatzen dituztenak. Bestalde, euskarri digital hauek ez datoz beti bat irudien esanahiekin, ez haien artean ez noizbait aipatzen dituzten lan idatziekin, eta horrek sekulako mesfidantza sortzen du gai honi buruz ikertzerako orduan.

### **3. Iturriak:**

Lan hau osotu ahal izateko egungo bibliografia modernoaz gain iturri klasikoak erabili behar izan dira. Hauek ezinbestekoak dira antzinateko gai bat landu ahal izateko. Izan ere, lehen mailako iturri hauek dira modu zehatz edo ez hain zehatz batean gertakizunak kontatzen dizkigutenak. Are gehiago, egungo historiografia iturri hauetatik baliatu da hipotesi propioak ateratzeko. Lana burutzeko bi iturri mota nagusi bereizi ditugu. Alde batetik iturri literarioak ditugu. Bestetik, arkeologikoak, batez ere zutabearen zentratuak.

#### **3.1. Iturri literarioak:**

Traiano eta Daziako Guduari buruz diharduten bi autore nagusi ditugu, jatorri eta garai desberdinetakoak direnak. Lehena Plinio Gaztea dugu, 61. urtean jaiotako intelektual erromatarra. Honen obra epistolario bat da zeinetan bere garaiko auziak kontatzen dituen, lagun eta ezagunekin gutunak trukatu. Azken urteak Trajanoren gudak markatzen ditu. Are gehiago, epistolarioaren azken liburua, hamargarrena hain zuzen, enperadorea eta intelektualaren artean bidalitako gutunek soilik osatzen dute. Enperadorearekin elkar trukaturiko gutunek ere guda testuinguruaren berri ematen digute, besteak beste. Bestalde, egile honen obraren bigarren elementu handiena Trajanoren Panegirikoa izango genuke. Hau

101 urtean idatzia izango zen, aurreko urtean emandako hitzaldia transkribituz. Dokumentu honetan enperadorea goraiatu egiten da, Plinio kontsul izendatu izanagatik. Testu honek enperadorearen inguruko ezaugarri eta ikuspuntuak ulertzeko balio digu. Hala ere, gure gairako honek ez du balio handiegirik guda gertatu baino lehenago idatzia izan baitzen. Horrez gain, bigarren autorea Dion Kasio dugu, 155 urtean Nizean jaiotakoa. Dione grekeraz *Romaiká* idazten du, Erromaren historia. Hiriaren sorreratik III. mendearen hasierara arte kontatzen digu honen historia. Hau laurogei liburu desberdinetan sailkatzen du, modu kronologiko baten antolatuz. Gure garai konkretuari LXVIII. alean egiten zaio aipu. Liburuki honen hasieran Trajanoren izendapenari buruz hitz egiten digu. Ondoren enperadorearen ezaugarriak aipatzen ditu. Gero, guri baliagarri egingo zaiguna, Daziako Guda xehetasun handiz aipatzen du. Ondoren Trajanoren hurrengo kanpainiak eta azken urteak kontatzen dizkigu, jada gure lanerako interes gutxiago dutenak.

### **3.2.Iturri arkeologikoak eta ikonografikoak. Foroa eta zutabea:**

Kanpainia bukatu ostean, 106. urtetik aurrera, Trajanok bere foroaren eraikuntzari ekingo dio, 112 urtean estreinatuko duelarik. Foro honek 600.000 Km<sup>2</sup>-ko azalera izango zuen, enperadore guztiek eraikitako fororik handiena suposatuz. Honen eraikuntza Apolodoro Damaskokoaren gidaritzapean eman zen. Kontuan izan behar dugu arkitektu hau enperadorearen konfiantzako aditua zela, jada kanpainia militarretan bere alde lan eginez, kasurik entzutetsuena Danubio zeharkatzeko zubia izanik<sup>4</sup> (Oltean, 2015: 11-13). Trajanoren foroan erabilitako material nagusiak adreilua, marmola, egurra eta granitoa izan ziren, besteak beste. Kontuan izan behar dugu, halako dimentsioetako obra bat egiteko behar izandako material kopurua izugarria zela. Horregatik, ezinbestekoa suertatu zen erromatar probintzietatik antolaturiko hornikuntza erabat espezializatua. Honen adibide gure Egiptoko *Mons Claudianus*-etik ekarritako granito kopuru itzela, zeinetarako espresuki itsasontziak diseinatu behar izan ziren (Pensabene eta Domingo, 2018: 111-113).

Foroan nagusitzen den elementua, iturri nagusi moduan erabili duguna Trajanoren zutabea da. Orden toskanoko zutabe hau foroaren iparraldean kokatzen da, bi liburutegien artean eta basilikatik iparralderago. Hau, 113. urtean dedikatua izan zen, Dion Kasioaren hitzetan 112. urtetik liburutegiekin bat eraikitzen hasi zelarik<sup>5</sup>. Zutabe honen helburua,

---

<sup>4</sup> Dio. 68.13.1.

<sup>5</sup> Dio. 68.16.8.

enperadorearen irudia goraiatzear gain, Daziako Gudaren nondik norakoak azaltzea izango litzateke. Horrez gain, zutabea enperadorearen errautsak gordetzeko toki moduan erabili izan zen. Kasu bakarra da erromatar enperadore guztien artean non haren gorpuzkiak *pomerium* barruan mantentzen diren (Oribe, 2019: 250-252). Guda modu egokian azaldu ahal izateko, goranzko forma helikoidal baten marmol lunensisean grabaturik gudaren eszena desberdinak agertzen zaizkigu. Egitura 29 blokek osatzen dute, bata bestearen gainean gainjartzen direnak. Bloke hauek pisu desberdina dute, pisutsuenak oinarrian daudelarik. Orora, zutabeak, 1100 tonako pisua du, 38,4 metroko garaierara iritsiz. Tontorrean, zutabeak, Trajanoren brontzezko eskultura bat izango luke. Barnetik zutabea hutsik egongo litzateke eskailera zirkular bati lekua uzteko (Lancaster, 1999: 419-422).

Eraikuntza posible egiteko lehen pausua lurra zimendatzea izan zen, 70 zentimetroko porlan geruza bat ezarriz. Zutabeak dituen 29 danboreetako bakoitza pieza monolitiko bakarra da. Pieza hauek zutabeen kokatu baino lehen lantzen ziren bi arrazoi nagusigatik. Lehena izango litzateke erliebeak egiteko errazagoa zela lurretik lan egitea aldamio batetik baino. Bigarrena izango litzateke marmola lantzerakoan piezari pisu nabarmena kentzen ziotela, gero igotzeko errazagoa zelarik. Erabilitako makineria ordea nahiko ezezaguna da. Halako eraikuntza batek zenbait zailtasun planteatzen ditu. Lehena eraikuntzaren bertikaltasuna izango litzateke. Bigarrena piezen pisua. Azkena pieza pisutsu hauek garaiera jakin batera iritsitakoan modu horizontal baten manipulatu beharra behar den tokian kokatu ahal izateko. Horregatik, argudia daiteke bi eraikuntza dorre erabili zirela, bata danboreak igotzeko eta bestea hauek kontrolatzeko, hala ere, gaur egun, hau espekulazio hutsa da (Lancaster, 1999: 423-432).

Zutabeak, guztira 155 eszena ditu. Gai desberdinak lantzen ditu eta modu kronologikoan antolaturik dago. Izan ere, goruntz goazen heinean, denborak aurrera egiten du kontatutako gertakarietan. Bertan, lehen aipatu bezala Trajanoren Daziako Guda kontatzen zaigu, lau atal nagusitan banaturik. Zutabearen erdialdean bi kanpainien arteko banaketa nagusia ikus genezake, 101-102 eta 105-106 urteen arteko gertakariak modu oso argi batean banatuz. Eraikuntza honek erakusten duen xehetasun maila izugarria da 2500 giza irudikapenetik gora nabarmentzen direlarik eta gai desberdinak lantzen dituztelarik (Villalobos, 2006: 43-44).

#### **4. Testuinguru Historikoa. Daziako Gerra (85-106):**

Landuko dugun gaia gerraren ondorioen ingurukoa izanik, eta Trajanoren zutabearen bitartez kokatuko dugunez, ezinbestekoa da, testuinguratzeko bada ere, Trajanoren Daziako Kanpainien berri izatea. Esan bezala, honetan ez gara luzatuko, baina, Dazia eta Erromaren artean I. mende amaierako eta II. mende hasieran emandako tentsio une garrantzitsuak azalduko ditugu, garrantzitsuenak Domizianoren kanpainia (85-89), eta Trajanoren bi kanpainiak (101-102 eta 105-106) izanik (Soria, 2020: 155-158).

##### **4.1. Domizianoren kanpainia (85-89):**

Badirudi, 85. urterako, Erromak inolako probokaziorik egin gabe, Daziak inperio mediterranearrari aurre egiteko asmo erakusten duela. Honen bitartez, Daziako Dures-Diurpaneok benetan bilatzen zuena Itsaso Beltzeko eta Danubio inguruko hegemonia zen, azken mende erdian erromatar *foedus*-ak nolabait leunduriko nahia. Nagusitasun hau lortzeko lehen pausua Mesia zonaldea bereganatzea zen. Hau ikusirik Erromaren helburua zonalde hau indartu eta *status quo*-a bermatzea zen. Zonaldean nolabaiteko estabilitatea lortu ostean, 86. urtean, Kornelio Fuskoren V. legioa iparralderantz mugitu zen Entente Dazikoarekin bukatzekotan, baina erabat suntsiturik geratu zen, erromatar garaipena zeharo oztopatuz. Honen ondorioz, daziarren presentzia areagotu zen Mesia inguruan. Horrenbestez, eta kontuan izanik Inperioak Germanian gatazkak zituela eta guda markomanikoan murgildurik zebilela, 89 urtean beste *foedus* bat sinatuko da. Honen arabera, Dazia erromatar aliatua izatera pasatuko litzateke, guda gatibuak eta arpilaturiko ondasunak elkarri itzuliz eta bien arteko laguntza tekniko ekonomikoa bermatuz, Dezebaloren errege titulua bermatzen zen bitartean (Soria, 2016a: 189-200).

##### **4.2. Trajanoren lehenengo kanpainia (101-102):**

Jada Trajano agintean izanik, eta *foedus*-a sinatu eta hamarkada bat beranduago, Dezebalok aukera ikusiko du berriro ere erromatar hegemonia arriskuan jartzeko. Izan ere, erromatarren laguntza tekniko militarrek eta urrezko meategiek ekarritako aberastasunak erabat indartuko du daziarrak armada eta haien aliatuena. Hala ere, Dezebalo ez da ausartuko era zuzen batean gerra deklaratzera. Horregatik, Mesia inguruan zenbait arpilaketa eta *razia* eramango ditu aurrera 101 urtetik aurrera, Inperioa ahultzekotan eta probokatzekotan.

Trajanoren erantzuna berehalakoa izango da. Hau ikusirik, Dezebalok armada Mesiatik erretiratuko du, lur errearen estrategia erabiliz. Errege daziarrak gotorlekuak erabiliko ditu erromatar zabalpena eteteko. Ikusirik estrategia nahiko antzua dela, *Tapae*-n, hiriburutik 5 kilometrotara, indar guztiekin aurre egitea erabakiko du. Bertan, Trajanok, kanpainia honetako garaipen erabakigarriena lortuko du (Piris, 2011: 22-25). Honi, gotorlekuen konkista guda batek jarraitu zion, 102. urterako jada *Sarmizegetusa Regia* guztiz inguratuta dutelarik. Une horretan Dezebalok bakea negoziatzea erabakitzen du, Erromari arma astunak emanaz, desertore eta guda gatibuak itzuliz, zeintzuek daziarrak armadaren kasuan elitezko gorpuak osatzen zituzten<sup>6</sup>, daziarrak guda aurreko mugetara itzuliz eta estatus klientelarraren azpimarrutz (Soria, 2016a: 245-262).

#### **4.3. Trajanoren bigarren kanpainia (105-106):**

103. urtetik aurrera Daziak berriro ekingo dio berrarmatze politika bati. Alde batetik, gotorlekuak berreraikitzen ahaleginduko da. Bestetik, erromatar desertoreak erreklutatzen jarraituko du<sup>7</sup>. Horrez gain, 60ko hamarkadako aliatu guztiekin harremanak ezartzen ahaleginduko da, baina ez du maila berean lortuko<sup>8</sup>. Hala, erromatarren aliatuak ziren Sarmata Iazigoak erasoko dituzte jada 104. urterako, erromatarren hein batean abisatuz. Hala, deklarazio formala hurrengo urtean iritsiko da. Dezebalok Dazian zeuden tropa erromatarren erasotzen ditu berehala negoziaketak hasiz (Piris, 2011: 25-26). Hala ere, Trajanok negoziaketari uko egiten dio. Enperadoreak Mesia gurutzatzen du, daziarrak armadaren erretiraketa behartuz. Honek gotorleku gudari hasiera emango dio. Jada 105 urtearen amaierarako aliatu guztiek Dazia bakarrik uzten dute. 106 urteko udaberrian Trajanok behin betikoa izango den kanpainia abiarazten du, lehenengo gudan gertatu zen moduan gotorleku gakoak bereganatuz eta *Sarmizegetusa Regia* inguratuz. Hala ere, oraingoan hiribiruan sartu eta txikitu egingo du, guda ia erabakita utziz. Urte bereko udazkenerako jada erromatarren ahaleginak oso xumeak ziren zenbait erresistentzia foko txiki soilik erradikatu behar zituztelarik. Honen ostean guda bukatutzat emango da, eta daziarrak erresuma erromatar probintzia izatera igaroko da, izen bera mantenduz (Soria, 2016b: 160-172).

---

<sup>6</sup> Dio. 68.9.6.

<sup>7</sup> Dio. 68.10.3.

<sup>8</sup> Plin. Min. *Epi.*10.74.

## **5. Gerraren ondorioak Trajanoren zutabeen:**

Gerra orok ondorio zuzenak ditu, arlo desberdinetan nolabaiteko eraginak dituztenak. Trajanoren Daziako Kanpainia ez da salbuespena eta ondorio oso nabarmenak izan zituen, gure analisisian hiru bloke desberdinetan sailkatuko ditugunak. Lehenik, ondorio politikoak genituzke, monumentuan modu oso zeharkako batean ageri direnak, baina garrantzia handia dutenak. Bigarrenik, ondorio sozialak edo demografikoak genituzke, zutabeen sekulako garrantzia dutenak. Azkenik, ondorio ekonomikoak genituzke, zutabeen zeharkako modu batean agertzen direnak.

Ondorio politiko nagusiak bigarren kanpainiaren bukaerarekin emango dira gehien bat. Izan ere, orain ikusiko dugun moduan, nabarmenenak izango dira Daziaren Erresumaren erabateko anexioa, haren egitura eta azpiegitura guztien suntsipena eta biztanleriaren asimilazioa, kolonizazio erromatar bat martxan jarri ahal izateko. Hau gauzatu ahal izateko, noski, gatazka guztiz bukatu egon behar da, erresistentzia oro ezabatuz. Aldi berean, ikusiko dugunez, egoera honek, erromarentzat oso arriskutsua den ezegonkortasun bat bultzatuko du Europa ekialdeak 118. urtera arte kontrolatuko ez dena.

Ondorio sozialak, ordea, jada guda garaian zehar erakutsiko dizkigu zutabeak. Hauen artean nabarmentzen dira biztanleria militarren migrazioak (testuinguru belikoan emango direnak), guda gatibuen auzia (eta honek ekarriko duen esklabotzaren fenomenoak), mugimendu migratorio zibilak (bai interes partikularretan eta bai biziraupen nahian oinarrituak), deportaketak eta herbesteaketak, interes politikoak bermatzeko emango den daziaren gizartearen integrazioa eta emakumeen egitekoa testuinguru belikoan.

Ondorio ekonomikoak, ordea, gudaren bi momentu jakinetan emango dira. Lehena, gudarako inbertsio militarra izanik, kanpainiak prestatzerakoan eta hauek aurrera eramaterako orduan emango da. Gainerako ondorioak batez ere guda ostean somatuko dira, lehena erromatarrek aurrera eramandako arpilaketa izanik, bigarrena gudaren ondorioz gertatutako landa eremuaren eta azpiegituren hondamendia, eta, azkena, erromatarrek bultzaturiko kolonizazioa.

## 5.1. Ondorio Politikoak:

Daziar presioak zapaltzeko aitzakiarekin antolaturiko kanpainiak berehala erakutsiko du benetako xede espansionista. Lehenengo kanpainiak helburua guztiz lortu ez izateak argi uzten zuen epe motzean beste gatazka baten beharra zegoela, gera zitezkeen zalantzak guztiz erabakitzeko. Dezebaloren altxamenduarekin Trajanok aitzakia paregabea izango du 105. urtean Daziaren beretzeari ekiteko, ondoren ikusiko ditugun ondorioak gertaraziz (Piris, 2011: 17-18).

### 5.1.1. Daziaren anexioa:

Gudaren ostean sinatutako bakeaeraren ondoriorik garrantzitsuen Daziaren erabateko anexioa izan zen, honek dakarren inperioaren *limes* danubiarren aldaketarekin. Izan ere, Domizianoren kanpainiaren ostean bake hutsa sinatu zen, eta Trajanoren lehen kanpainiak lurralde gutxi batzuk soilik bereganatu zituen, Olt ibaiaren ekialdeko lurraldeak, Karpatoen Hegoaldea eta Valakia hain zuzen, Mesiako probintzian integratu zirenak. Haien artean, batzuk, gerra bukaeran itzuli ziren baina nolabaiteko erromatar presentzia mantentzen zuten. Hau oso ongi ikus daiteke zutabeko irudikapen batean<sup>9</sup>, (XC. eszena<sup>10</sup>)<sup>11</sup> non daziarrak, hirigune baten, erromatarrei harrera egiten ari diren. Bertan, Trajano bera dugu zaldiz tropen gidari hiriaren atarian hamaika daziar lau seme alabekin zain dituztelarik. 106. urtekoa, ordea, errendizio totala izan zen, daziar lurraldeak Erromatar Inperioaren menpe uzten zituenak. Honetan oinarrituko da aurrerago komentatuko dugun ustiaketa politika ekonomikoa eta ekonomiari zuzenduriko kolonizazioa, hiri eta bilgune berriak guda garaian erabilitako erromatar kanpaleku eta gotorlekuen inguruan antolatuz. Hala, Dazia menpeko erresuma bat izan ordez inperioaren probintzia izatera igaro zen (Soria, 2016a: 292).

### 5.1.2. Daziar erresuma, sinbolo eta eliteen desagerpena:

Hau modu errazago baten burutzeko, eta etorkizuneko ideia nazionalistak deuseztatzeko, Trajanok, daziar egitura gehienak deuseztatu zituen, erromatarrek ezarritak. Are

---

<sup>9</sup> “Reading an Ancient Comic Strip”, National Geographic.

<https://www.nationalgeographic.com/trajan-column/index.html>.

Azken aldiz 2022-ko Maiatzaren 10ean kontsultatua.

<sup>10</sup> Aurrerantzean eszenei erreferentzia egiteko zenbakiaren ostean e. laburdura erabiliko dugu.

<sup>11</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 70.



gehiago, sinbolo eta ezaugarri guztiak aldatu zituen. Horren adibide litzateke hiriburuaren suntsiketa eta honen berreraiketa, kanpaleku erromatarren inguruan eraikiko zena eta berrizendapen baten eskutik etorri zena. Berreraikuntza hau 110 urtean egingo zen, *Colonia Ulpia Traiana Sarmizegetusa* izenpean. Izenak modu nabarmenean erakusten digu enperadorearen legitimizazio nahia. Alde batetik argi uzten digu nor den hiriburuaren birfundatzailea, bestetik *Sarmizegetusa Regia* antzinako izenetik elementuetako bat mantentzen du, indigenentzat guztiz arrotza izan ez dadin. Hiriburuaren eraikuntza hau ez da salbuespena, erromatarrek hiri sare berri bat sortuko dute, antzinako nukleoak alde batera utziz eta zonalde berrietan *ex novo* eraikiz (Soria, 2020: 10).

Erresumaren desegituraketa honetarako gakoa izan zen existitzen zen aristokraziaren ezabaketa. Aurrerago aipatuko dugun moduan, Trajanok Daziaren sinbolo eta elementu guztiak ezabatu behar zituen biztanleria bizkorrago eta errazago erromartzeko. Elite hauek sinboloetako bat ziren. Are gehiago, erromaren aurka altxatzekotan baliabideen jabeak ziren. Horregatik, Trajanorentzat ezinbestekoa zen hauen gaineko kontrola ezartzea eta egitura estataletatik kanporatzea. Hau, nolabait, Dezebaloren kasuan ikus genezake. Bere buruaz beste egin ostean<sup>12</sup>, erromatarrek bere burua trofeo gisa erabiltzen dute (CXLVII. e.)<sup>13</sup> ez soilik garaikur bezala, baizik eta abisu bezala, eliteei gertatuko zitzaiena erakutsiz. Egia da eszena honen kontserbazio egoera nahiko traketsa dela, baina ikus daiteke buruaren erakusketa hau gune hesitu batean ematen dela, daziar asko begira daudela eta erromatar soldaduak kanpoaldean zelatan ari direla. Honen ondorioz, izan daiteke gertakari hau atxilotuen aurrean eman izana. Batez ere erromatarren aurka ahalegin berezia egindako eliteei bidalitako mezua da hau, horregatik erakutsiko zaie presoei. Honek badu beste irudikapen bat zutabea (CXLVI. e.)<sup>14</sup>, errege daziarraren emaztea eta semea atxilotzen dituztenean. Eszena honetan argi ikusten da emakume eta ume bat guda zelai batetik gertu kokaturiko baso batean harrapatzen dituztela, agian ezkututzen ari zirela. Bertan, hiru daziar daude. Lehena, atxilotua izaten ari den daziar heldua, inolako erresistentziarik erakusten ez duena. Bigarrena, eskuinerago kokatzen dena, atxilotua izaten ari den emakumea dugu. Honek bai azaltzen ditu erresistentzia zeinu argiak, besoak zabal-zabalik dituelarik legionarioak besapetik heltzen duen bitartean. Azken daziarra ume bat izango litzateke, seguruenik Dezebaloren semea dena. Honen gorputzaren orientazioak aditzera ematen digu ihes egiteko ahaleginetan dabilela,

---

<sup>12</sup> Dio. 68.14.3.

<sup>13</sup> Ikus eranskinrtan 8.2, oin oharra 76.

<sup>14</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 75.

baina aldi berean amaren soinekoa heltzen du atxiloketa ikusten duen bitartean. Lurrean daziarrak gorpu bat dago, agian daziarrak erregearena izan daitekeena (Soria, 2016a: 291-292).

Aurrekoarekin hertsiki loturik, daziarrak aristokraziak ere bazuen funtzio eta pisu erlijioso nabarmen bat. Nahiz eta egia izan orokorrean erromatarrek ez zutelako konkistaturiko lurraldeetan erlijioa inposatzeko joera argirik, kasu honetan kohesioa bermatzeko elementu gisara erabiliko da praktika erlijiosoa. Izan ere, behin aristokrazia politiko, militar eta erlijiosoa kenduta, honen ezaugarri guztiak ordezkatu behar ziren. Erlijio honen ordezkapena modu oso erraz batean ikusten da zutabearen ageri den eszenetako baten (XCI. e.)<sup>15</sup> non daziarrak biztanleria, umeak eta emakumeak barne, errituetan parte hartzen ari den hauen gidaritza erromatar eskuetan geratzen delarik (Soria, 2020: 8-11). Eszena honen izaera errituala oso argi ikusten da goikaldean ikusten baitira sakrifikatuak izango diren lau idiak. Aldi berean, Trajano bera agertzen zaigu errituari hasiera emango dion desfilea gidatzen, atzekaldean lehenik gizon erromatarrik dituelarik (bizar gabe eta ile motzarekin irudikatzen direnak), atzerago gizon daziarrak (bizardunak), eta azkenik emakume daziarrak (ilea estalirik daramatela) dituelarik. Egia da, hau, oraindik guda testuinguruan emandako eszena bat dela, baina argi dago ondorengo testuinguruan are indar gehiago izango zuela erromatar erlijioak daziarrak gizartean, gutxienez arlo publikoan bada ere. Sinboloen eta egituren zein erlijioaren ezabapen honek, bultzatutako kolonialismoarekin bat, beste ondorio nabarmen bat ekarri zuten, erromatarrek sekulako oniritziz ikusiko zutena. Honi guztiari esker, erromatarrek lortu zuten kultura jeto-daziarraren desagertzea, kultura grekolatindarraren mesedetan. Berrito ere, honek, daziarraren erromatartzean eta asimilazioan zeharo lagunduko luke (Soria, 2020: 7-9).

### ***5.1.3 Europa ekialdeko egonkortze politikak:***

Gudaren azken ondorio politikoa izango litzateke honen ostean Europa ekialdean emandako ezegonkortasun militarra. Izan ere, Daziaren konkistak lurraldea oso zauriturik utzi zuen, bai demografikoki eta bai ekonomikoki. Horren aurrean, eta ikusirik 104 urtean Daziak Iazigoei kendutako lurak itzultzen ez zitzaizkiela, erromatar aliatu ohiek gerra deklaratu zioten erromari daziarrak guda bukatu bezain pronto 106 urtean. Nahiz eta Erromak garaipen nahiko erraza lortu zuen, honek ezegonkortasun honen lehen mugarririk ezarriko du. Jada 117. urtean, Trajanoren Partiarren kanpainia ematen ari zela, berrito ere Iazigoek eta Erroxolanoek,

---

<sup>15</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 70.

seguruenik daziarren hondakinekin, Daziako probintziako eremu batzuen kontrola hartu zuten. Hauek, berriro ere zapalduak izan ziren, enperadoreak planteaturiko neurri berriak erraztuz. 118. urtean Adriano enperadoreak Iazigoei eskatutako lurak ematea onartu zuen, baita urte bat beranduago Erroxolanoei. Horrez gain, hauei laguntza ekonomikoak ematea onartu zuen eta estatu kliente bihurtu zituen. Bestalde, zuen eremu murrizagoan barne birantolamendu bat planteatu zuen. Neurri hauei esker, zonaldearen benetako egonkortasun bat sortuko da, inguruneko erromatar nagusitasun bat ahalbidetuz (Soria, 2016a: 296-300).

## **5.2. Ondorio sozialak:**

Orokorrean, gudaren ondorioez ari garenean bizitza kostuari erreparatzen diogu modu zuzenean, batez ere guda zelaian galdutako biziak kontuan hartuz. Honek, noski, sekulako errepresentazioa dauka Trajanoren zutabeen. Izan ere, irudien %21-ek guda eszenei egiten die aipu. Irudi hauen gai orokorra guda bada ere, oso desberdinak dira kontatu nahi digutenaren arabera. Adibidez, lehen guda eszenak (XXIV. e.)<sup>16</sup> bi armaden arteko talka orekatuago bat irudikatzen digun bitartean, jada 102. urteko kanpainiako irudiek (XL-XLI. e.)<sup>17</sup> sekulako sarraskiak erakusten dizkugute, lurra gorpuz beterik irudikatuz. Izan ere, lehen eszena horretan ezker aldean Trajano bera ikus daiteke tropak kanpamenduan dituela bataila behatzen. Bataila hau nahiko ordenaturik emango da eta irudikaturiko soldadu kopurua oso orekatua izango da. Bigarren eszena multzoak erromatar zalditeria eta infanteria karga bat erakutsiko digu bizpahiru daziarren aurka, gehienak jada hilda daudelarik. Erromatarrek 150.000 soldadu inguru erreklutatu zituzten, eta ohiko estimazioen arabera daziar eta haien aliatuek 200.000 inguru. Beraz 350.000 gerrari inguruk hartu zuten parte, honek dakartzan galerekin (Soria, 2016: 37-39, 143-158).

### **5.2.1. Soldaduen mugikortasuna:**

Bestalde, eta oraindik guda eszenei soilik erreparatuz, ikus dezakegu zutabeak ahalegin berezi bat egiten duela daziar eta erromatarren arteko desberdintasun bat egiteaz gain, erromatarren artean zeuden tropa auxiliarren arteko diferentziak markatzerako orduan. Honen adibide bat 102. urteko kanpainian ikus dezakegu. Alde batetik *Equites Mauri*-en

---

<sup>16</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 56.

<sup>17</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 59.

(zalditeria mauritaniarra) karga bat ageri zaigun (LXIV. e.)<sup>18</sup> eta bestetik legionari erromatarrek osaturiko testudo formazio bat (LXXI. e.)<sup>19</sup>. Oso nabariak dira hauen arteko alde fisikoak. Mauritaniarrak, zalditeria arineko elitezko gorputz militar bat osatuko dutenak, tunika sinple batekin jantzirik agertuko dira, diferentzia nagusi moduan kirrudun ile luzea izango dutelarik. *Equites Mauri* hauen lana batez ere eremu malkartsuetako karga zailenak burutzea zen, Erroman prestigio itzela zutelarik, eta Daziako Guduan, zutabeak ematen digun informazioaz gain, Dion Kasioaren hitzetan egiteko garrantzitsua jokatu zutelarik<sup>20</sup>. Testudo formazioaren eszenak, ordea, erakusten digu erromatarren gaitasun estrategikoa gune gotortu batera gerturatzeko orduan, eszenaren goikaldean daziarrak baititugu hauen haurka jaurtigailuak botatzen ari direla. Bi eszena hauek, noski, aditzera ematen digute erromatar inperioak tropa ezberdinak mugitzeko zuen gaitasuna, inperioko edozein gunetik soldaduak garraiatuz (Oltean, 2015: 132). Honen beste adibide argi bat dugu jatorri hispaniarra zuen VII. legioaren balizko parte hartzea. Guztiz argi ez badago ere, badirudi *Gemina* izeneko legio honek gatazkan parte hartu izan zuela, 68. urtean Panoniako kanpainian bereganaturiko esperientziaren ondorioz (Abascal, 1985: 346-348).

Biztanleria militar honen mugikortasunean eragina izan zuen beste ondorioetako bat hauen erretiraketa litzake, galtzear dagoen bataila batetik egiten dena. Kasu gehienetan, ihesaldi hau gotorleku edo hirietara ematen da.

### **5.2.2. Guda gatibuak eta esklaboak:**

Biztanleria militararekin jarraituz, gudetako auzi nagusietako bat gerra gatibuena izan ohi da. Kontuan izanik Daziako Gudaren aurrekaria Domizianoaren kanpainia izan zela, eta honen bake akordioko hitzarmenetako bat hauen itzulera izan zela, kasu honetan ere hauen presentzia nabarmena izango da. Are gehiago, berriro ere, bi kanpainien artean sinatutako bakean hauen itzulera onetsiko da. Hala ere, hau ez da emango 106 urtera arte, gudaren amaierarekin. Noski, fenomeno honek ere baditu bere eszenifikazioak zutabeen. Adibide nabarmena 102. urtean erromatar egitura baten atxiloturiko 8 daziarrak inguru ditugun irudia litzateke (XLIII. e.)<sup>21</sup>. Hauek, lehen Dezebaloren eszenan aipatu dugun moduan, gune hesitu baten barnean daude, kanpoan legionarioak zelatan dituztelarik. Egia da seguruenik

---

<sup>18</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 63.

<sup>19</sup> Ikus eranskinean 8.2, oin oharra 65.

<sup>20</sup> Dio. 68.32.4.

<sup>21</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 60.

baliabide artistiko bat dela lekua aurrezteko, hala ere, ikusten da esparru oso txikian daziar metaketa handia ematen dela. Honek, aditzera eman diezazkiguke gatibu hauen bizi baldintzen nondik norakoak. Hala, badaude beste irudikapen batzuk non soldadu erromatarrek presoak egin edo garraiatzen baitituzten (CXLVIII. eta CLII. e.)<sup>22</sup>. Lehen eszenan oso argi ikus daiteke erromatar tropa auxiliarrak osatutako zirkulua, erdialdean atxilotuentzako lekua utziz, eskuak bizkarraldean dituztenak. Bigarren eszena hau oso antzekoa da, tropa auxiliarrak ageri baitira hiriaren errekuntzatik gertu atxilotuak garraiatzen. Horrez gain, 102. urteko kanpainiako eszena batean (LXVIII. e.)<sup>23</sup> Trajano bera ikusenezake atxilotuetako batekin hizketan, bi soldaduk besapetik eusten duten bitartean. Nahiz eta badagoen presoen beste irudi nabarmen bat komenigarria da aurrerago komentatzea (Soria, 2020: 6-9). Nahiz eta, antza, guda ostean gatibu hauen itzulera eman zen, ez liguke harritu behar jakiteak askoren etorkizuna esklabotza izan zitekeela. Egia da zutabeak ez digula honen gaineko aipu zuzenik egiten, hala ere, praktika oso hedatua da antzinateko gerrate testuinguruan, batez ere erromatar kasuan. Izan ere, helburu ekonomiko batekin, oso arrunta zen jeneralek hauen salerosketa zuzentzea. Horrez gain, praktika honek bazuen helburu politiko-militar bat, esklabo hauen salerosketarekin, gehienetan, zapalduetako herriaren desmilitarizazio bat ematen baitzen, etorkizuneko balizko altxamendu bat galaraziz (García, 2007: 26-27).

### **5.2.3. Biztanleria zibilaren mugikortasuna:**

Antzinateko guda testuinguruan, biztanleria zibila eta militarren arteko mugak oso lausoak dira. Izan ere, erromatar eredu adibide moduan hartzen badugu, erraz ikusiko dugu erromatar hiritarraren dualismo zibil/militar hori. Hala ere, badaude zenbait kasu non zibil eta militarrek harreman zuzena izango duten. Honen adibide izango lirakete kanpainia militarretarako eraikitako gotorleketan gertaturikoa. Izan ere, guneha huetara biztanleria zibilaren zati handi bat hurreratu behar izango da. Bertan ikus ditzakegu mantenuaren arduradunak, merkatariak eta bestelakoak. Kanpamenduetara gerturatutakoen garrantzia hain da handia non estimatzen den, hauei tropa auxiliarraren hornidura gehitzen badiegu, legio osoaren beharrak bikoizten zituztela. Honek, berriro ere, guda garaiko biztanleriaren mugimendua erakutsiko digu, gehien bat interes ekonomiko-militarretan oinarriturik (Lago, 2008:66).

---

<sup>22</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharrak 76 eta 77.

<sup>23</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 64.

Fenomeno oso antzeko bat gertatzen zaigu alde daziarrean. Izan ere, hauen artean aurkitzen ziren Bastarnoak eta Erroxolanoak joera nomadadun herriak ziren. Hauek, konkistak gauzatzeko orduan biztanleria soberakinak armadarekin bidaltzen zituzten, okupazioa modu azkar batean burutzeko. Hau oso argi ikusten da Trajanoren zutabeen non erliebeetako batean ikusten den Daziarren aldetik, guda eszena batean, zenbait gurdi eta biztanle zibil dauden. Erliebearen kontserbazio egoera dela eta ez gara gehiegi sartuko hau komentatzera, hala ere ikus daiteke nolabait ez duela inolako funtzio militarrik (Soria, 2020: 2).

#### **5.2.4. Lekualdaketak:**

Biztanleriaren mugimendu hauek, hein batean, aurreikuspen eta interes partikular zein kolektibo batzuek bultzaturik ematen dira. Hau da, legioaren atzetik doan merkatariak alde batetik, onura propioak ateratzen ditu migrazio honetatik, ongiak saltzea hain zuzen. Bestetik, ongizate kolektibo baten parte hartzen du, erromatar armada bere helburuan lagunduz. Hala ere, zenbait kasutan migrazioak beharrak eta biziraupenak bultzaturik emango dira. Honen erduetako bat izango litzateke bataila konkretuetatik ihesi dabilen biztanleria, zutabeen oso ondo irudikaturik aurkitzen dena. Alde bietako ihesak azaltzen zaizkigu monumentu erromatarrean. Logikoki, lehen eszenetan, gudaren hasiera azaltzen dutenetan hain zuzen, erromatarrek ageri zaizkigu ihesean, babes bila (XXXI eta XXXII. e.)<sup>24</sup>. Lehen bi eszenek, harremandurik daudenak, erakusten digute daziar eraso baten ostean erromatarrek ihesi doazela gotorleku batera, non ondoren setio daziar bat emango den. Bigarren eszenan erromatar biztanleak berriro ere gotorleku batera sartuko dira babes bila. Eszena honen berezitasuna da barnean enperadorea egongo dela erromatarren ongizatea eta babesa bermatuz. Kontuan izan behar dugu, guda hasieran Mesia ingurunean behin-behineko espantsio bat lortuko duela aliantza daziarrak, erromatar kokapenen kontrola eskuratuz, eta bertako biztanleak kanporatuz. Guda aurrera doan heinean, ordea, irudiek, populazioaren kanporaketari dagokionean daziarren ihesa erakutsiko digute batez ere. 106. urteko kanpainiaren amaieran metatuko dira gai honen inguruko eszena gehienak (CXXII. eta CXL. e.)<sup>25</sup>, bi hiri nagusi erori ostean ihesi dabilzan daziarrak irudikatzen dituztenak. Lehen eszenak benetako larrialdi sentsazioa transmititzea lortzen du daziar talde handi bat ikusten

---

<sup>24</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharrak 57 eta 58.

<sup>25</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 73 eta 74.

baita espazio oso murriztu batean ihes egiten, batak besteari bultza eginez, hiria atzean uzteko ahaleginetan. Bigarreanean ordea, badirudi ez daudela estualdi egoera berdinean, eta jada urrunago daudela larrialdiaren gunetik, atzeruntz begiratzen dutelarik utzitakoa behatuz. Hala ere, eszena honen gordintasuna suizidioetan oinarritzen da, daziar batzuk labana txikiekin beren bularrak sastatzen dituztelarik (Soria, 2020: 6-9).

Honi jarraituz, zutabearen gai errpikakorrenetako bat setioak dira,, asentamendu hauen kontrola eskuratzeko ematen zirenak. Hala ere, hau nahiko berezia da. Izan ere, Erromatar armadak setiorako gaitasuna bazuen ere, argi geratzen dena zutabearen ikusten diren makinekin (CXIV. e.)<sup>26</sup>, non hiri daziar baten atarian katapultak ageri diren Trajanoren gidaritzapean, orokorrean zelaian planteaturiko batailak nahiago zituen. Setio hauetan emandako biolentziak askotan ez zuen balio militarrik, baizik eta balio sinboliko bat. Hau da, setioa bera, askotan, ez zen estrategikoki ezinbestekoa, baina oso garrantzitsua zen etsaien artean izua zabaltzeko, biztanleria zibilarengan sekulako biolentzia aplikatuz. Are gehiago, izu hau hedatzeko beste teknika desberdinak ere erabiltzen ziren. Hau oso argi ikusten da zutabeko irudikapen baten non eraikitzen ari diren erromatar kanpamendu baten atarian daziarren buruak lantza gainean ikus ditzakegun, etsaiak izan dezaketeten etorkizunari buruz berri ematen (LVI. e.)<sup>27</sup>. Izu hau da iheserako bigarren arrazoi nagusia. Biztanleria zibila ez dago prest erromatarren esku erortzeko, eta beraz, nahiago du ihes egin. Muturreko kasuak ere badaude, setio honekiko beldurra eta agian harrotasuna erakusten dizkigutenak, non biztanleriaren zati batek nahiago duen bere buruaz beste egitea. Irudi hauek (CXIX. eta CXL. e.)<sup>28</sup> gudaren arlorik gordinenetako bat isladatzen dute eta ez dira gai honen inguruko bakarrak. Lehen irudiak pozoizko suizidioa eszenifikatzen digu, daziar batzuk ontzi batetik edaten ari diren bitartean, lurra gorpuz beterik dagoela. Bigarreanean ordea, lehen azaldu dugun moduan, zenbait daziar azaltzen zaizkigu bere burua sastatzen. Are gehiago, azkenengotariko eszena baten, guda amaitzear dagoela, Dezebaloren suizidioa errepresentatzen zaigu (CXLV. e.)<sup>29</sup>, lurlean belauniko dagoelarik sahietsaldean labana sastatzen duelarik, atzekaldean bataila handi bat gertatzen den bitartean, seguruenik azkena izango zena, eta lehen aipatu ditugun ondorio politikoak izango zuena (García, 2009: 71-72).

---

<sup>26</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 71.

<sup>27</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 62.

<sup>28</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 72 eta 74.

<sup>29</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 75.



### 5.2.5. *Herbesteraketak eta deportaketak:*

Gerra unean bertan ematen den beste populazio mugimendu behartu nagusia herbesteraketak eta deportaketak izango lirateke. Hau, garaileak konkistaturiko lurraldeetako bizilagunei ezarritako zigor argia izango litzateke, Daziako Gudaren ostean modu oso zabal batean eman zena gero azalduko dugun arrazoiengatik. Berriro ere, zutabeak ondorio latz hau salatzen digu, gehien bat, bi une nagusitan zentratuak. Deportazio masibo hauek, batez ere, bi kanpainia nagusien bukaeran emango ziren, erromatarren lehen garaipen partzialarekin eta ondoren totalarekin. Horregatik, irudikapenak une hauetan ikusiko ditugu. Lehen erliebe nagusian (LXXVI. e.)<sup>30</sup> daziarrak ageri zaizkigu haien gotorlekuetako bat desegiten eta abandonatzen. Honek deportazioaz gain, orain sakonduko ez dugun desmilitarizazio bati buruz berri ematen digu. Bigarren multzo nagusia zutabearen azken bi erliebeek osatuko lukete (CLIV. eta CLV. e.)<sup>31</sup>. Lehenengoan daziarrak familien desfile bat ikus dezakegu, haien lurrak uzten ari direnak, deportazio zantzu argiak erakutsiz. Bertan, familiako kide guztiak ikus ditzakegu ilara bat eginez, haien bizilekuak abandonatzen. Azken erliebean, ordea, familia hauen abereak ikusten dira, bata bestearen atzetik (Soria, 2020: 6-9).

Deportazio hauetarako arrazoi nagusia izango da Erromak izango duen joera koloniala. Ikusi dugun moduan, Erromak ez du interesik izango Daziarrak Erresuma menpeko lurralde moduan onartzen. Horren ordez guztiz anexionatzeko helburua izango du, eta horretarako, ezibestekoa izango da biztanleriaren zati bat behintzat guztiz erromatarra izatea, inperioak behar adinako babesa izan dezan. Hau lortzeko modurik errazena eta erabatekoena kolonizazioa bultzatzea izango da. Fenomeno hau, jada, lehen gudaren amaieran ikusten hasiko da. Hala ere, ez du benetako bulkada bat izango guda guztiz bukatu arte. Izan ere, lehen kanpainian konkistaturiko lurreek ez zuten segurtasun ezta egonkortasun maila minimorik eskaintzen, eta horrela oso zaila zen kolonoak erakartzea. Guda guztiz bukatu ostean, lehen komentatu dugun moduan, erromatar egiturak guztiz ezarriko direnean hain zuzen, kolonizazio hau benetako fenomeno bat izango da. Hemen aipa genezake, ere, kanpamendu erromatarretan aurki zitezkeen zibilen artean zeudela kolono hauek, berriro ere interes partikular eta kolektibo nabarmenek bultzatzen zituztelarik. Kolonizazioa burutuko duten zibil hauen irudikapen nagusia, agian, 105. urteko kanpainiari hasiera emango dioten portuko irudietan ikusiko dugu (LXXIX; LXXX; LXXXI; LXXXII; LXXXIII. eta LXXXIV

<sup>30</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 66.

<sup>31</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 77.

e.)<sup>32</sup>, non zibil ugari ikusiko baititugun ontziratzen, kanpainiara abiatzeko prest. Eszena hauek era bateratu batean interpretatu daitezke sekuentzia bat badira ere. Bertan, 102. urteko kanpainian ikusi dugun moduan, antolamentu logistikoa ematen da erromatar portu baten. Oso nabarmena da erromatar hirigune bat dela ezaugarri erromatardun tenpluak eta garaipen arku bat ikus ditzakegulako. Bertatik ontzi kopuru nabarmen bat ateratzen da, erromatarren menpeko hiri daziarrera abiatuko direnak. Hala ere, hemen agertuko zaizkigun gizon guztiak janzkera zibilarekin agertuko zaizkigu. Are gehiago, azken aurreko eszenan (LXXXIII. e.)<sup>33</sup> gizon hauek umeeekin agertuko dira, aditzera emanaz seme alabak beraiekin eraman dituztela, kolonizazioaren zantzu argi bat izanik (Soria, 2016a: 291-294).

### **5.2.6. Daziar biztanleriaren asimilazioa eta integrazioa:**

Zutabeak erakutsiko digun beste ondorio sozial nagusietako bat, agian, arestian komentaturiko daziar biztanleriaren erromatar inperioarekiko asimilazioa izango litzateke. Hau da, daziar hauen nolabaiteko “erromatartzea”. Izan ere, honek helburu politiko nabarmena bazuen ere, mekanismo erabat soziala zen. Hau adierazteko eszena baliogarri anitz ditugu, multzo desberdinetan sailka genitzakeenak. Asimilazio hau aditzera ematen diguten eszena sinple eta ulergarrienak dira errendizio edo negoziaketa eszenak. Izan ere, jakinik Trajanoren helburua herri daziarraren anexioa zela, eta negoziaketa hauek enperadorearen garaipenen ostean irudikatzen zaizkigula, argi geratzen zaigu hauen ondorio zuzena zela tokian tokiko biztanleria garaituaren berehalako menpekotasuna. Honetarako *deditio* izeneko formula erabili ohi zen. Eszenifikazio hauek zutabe osoan zehar emango zaizkigu. (XVII; XXVIII; eta LII; e. besteak beste)<sup>34</sup>. Lehen irudikapen honetan, guda hasierako testuinguruan, bi soldadu erromatarrek indarrez gatibu bat daramate Trajanoren aurrera eraikia izaten ari den kanpamendu batean. Honek, atzean, armadako goi karguak ditu. Seguruenik, atxiloturik dagoen gizona Trajanorekin negoziata dezan daramate, nukleo daziar baten burua izan daitekeelako. Bigarren eszenan, ordea, negoziatioa, modu askoz ere baketsuago batean ematen da, erromatar gotorleku baten atarian enperadorea, bere gizonak atzean dituela, zutik eta aske dauden daziarrekin eztabaidatzen duelarik. Bestalde, asimilazio honen beste eredu-takoa bat da zenbait eszenatan, guda testuinguruan, erromatarrak eta daziarrak elkarlanean ikustea. Hau, noski, jada erromatarrek kontrolaturiko lurretan emango

---

<sup>32</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 68.

<sup>33</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 68.

<sup>34</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 55, 57, eta 61.

da. Hau ikusteko, zutabeak, bi irudi oso esanguratsu planteatzen dizkigu. Lehenean, aurretiaz ikusi dugun irudia dugu (XC. eszena)<sup>35</sup>, daziar familiak erakusten dituena hiri baten atarian erromatarrei harrera eginez, enperadorea zaldi gainean tropen gidari bezala doan bitartean. Bigarren eszenan, arestian komentatu duguna (XCI. e.)<sup>36</sup>, Trajano bera ikus dezakegu sakrifizio bat zuzentzen, atzetik biztanleria daziar osoa duela. Hau nahiko esanguratsua da, zutabeak halako praktika anitz biltzen baititu, (VIII; LIII; e. besteak beste)<sup>37</sup>. Lehen eszena honetan Trajano ikus daiteke aldare batera igota eta apaizez inguratuta libazio bat egiten. Eszena osatuz sakrifikatuak izango diren idia, ardia eta txerria ditugu, baita tronpeta joleak, arlo erlijioso eta militarra erabat lotuz. Aipatu beharra dago halako zeremoniak kanpainia hasieratan edo garaipenen osten ikusiko ditugula, garaipen eskakizun edo ospakizun moduan, hain zuzen. Bigarren eszenan Trajano hiri barruan ageri zaigu soldaduz inguratutik, buruan estalki moduan animalien larruak dituztenak eta estandarteak daramatzatenak. Hala ere, berezitasun nagusia zutabeen agertzen diren beste eszena erlijioso guztiekin da enperadorea *pontifex maximus* moduan jantzirik dagoela, burua togaz estalirik. XCI. eszenan, ordea, lehen aldiz, daziarrek, bai emakume eta bai gizonek, erromatar bizitza erlijioso publikoan parte hartuko dute, batasun, edo gutxienez gertutasun nabarmen bat erakutsiz. Bai irudi hau, eta bai harrerarena 105. urteko kanpainiaren hasieran koka ditzakegu, non erromatarrak aurreko urteetan bereganaturiko gune estrategikoetara abiatzen diren, bertotik guda antolatzeke. Hala, ezinbestekoa izango zen biztanleen oniritzia eta harrera ona izatea, kanpainia zapuztu ez zedin (Soria, 2020: 4-9).

### **5.2.7. Emakumeen egitekoa Daziako Gudan:**

Ondorio sozialekin bukatzeko oso garrantzitsua iruditzen zait aipatzea emakumeen egitekoa, edo, gutxienez, hauek zutabeen duten errepresentazioa. Izan ere, orokorrean gudaz ari garenean, batez ere, antzinatean kokatzen garenean, gizonei eman ohi zaie arreta osoa. Zutabeak, ordea, emakumeek jokaturiko papera ere azaltzen digu, adieraziz, guda zelaian izan ez bazen ere, hauek paper garrantzitsu bat jokatu zutela gudan. Guztiz logikoa da erromatarra bezalako inperio erraldoi baten aurkako biziraupen guda batean biztanleriaren zati ahalik eta handienak parte hartzea, eta beraz, ezinbestekoa da, maila batean edo bestean, emakumeen parte hartzea. Lehenago aipatu ditudan herbesteraketa eszenetan, emakumeak

---

<sup>35</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 70.

<sup>36</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 70.

<sup>37</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 54 eta 61.

ageri zaizkigu gizonekin eta umeekin batera. Hala ere, hauek jasango zuten zigor honen atalik gogorrena, asko alargun geratu baitziren gudaren ondorioz, ezagutzen ez zuten lur batera abiatu beharrean, seme-alaben ardurarekin. Bereziarena, eta lehen aipatu ez dudana, 101. urteko kanpainiaren amaieran kokatzen dena izango litzateke. Erliebe honetan, (XXX. e.)<sup>38</sup> Trajanok berak erakusten die bidea deportaturiko emakume eta umeei, seguruenik lehen aipatu dudana egoeran egongo zirelarik. Horretarako itsasontzi bat seinalatzen die emakume eta ume hauei, legionarioz inguraturik dauden bitartean. Honek ulertarazten digu gertakariaren izaera behartua. Patu okerragoa pairatuko zuten eliteen zenbait emakumek, honen adibide gogorrena Dezebalo beraren emaztea izanik. Lehen aipatu dugun moduan, daziar liderrak buruaz beste egin ostean, honen familia atxilotuak izango ziren (CXLVI. e.)<sup>39</sup>.

Horrez gain, badaude emakumeen irudikapenak non hauek bestelako gauzak egiten ari diren. Horren adibide nagusia sakrifizioetan parte hartzea izango litzateke. Lehen aipatu dugun irudikapenean non daziarrek sakrifizioan parte hartzen duten, gehiengoa, emakume ez erromatarrek osatzen dute (XCI. e.)<sup>40</sup>. Bestalde, badago beste sakrifizio bat non emakume eta ume erromatarrek parte hartzen duten (LXXXVI. e.)<sup>41</sup> berriro ere hauen presentzia azpimarratuz. Eszena honen erdialdean Trajano ikus dezakegu, atzealdean hiri erromatar bat duelarik. Ezkerraldean, Trajanok bizkarra ematen dielarik elite militarrek ageri dira, eta aurrez aurre emakume hauek nabarmentzen dira gizon gutxi batzuen atzean.

Hala ere, deigarriena egiten zaigun gertakaria 102. urteko kanpainian kokatzen den erliebe bat (XLV. e.)<sup>42</sup>. Bertan daziar emakumeak ditugu, beharbada erromatar soldaduak torturatzen. Eszenan, hiru soldadu erromatar ditugu biluzik. Hauen jatorriaren berri ematen digun faktorea da emakumeek daziar janzkera eta orrazkera eramateak. Hauek posizio oso deserosoetan heltzen dituzte bost emakumeek. Irudiaren erdialdean daukagun gizona bi emakumeren artean heldu eta kolpatzen dute. Goikaldeko bi emakumeak gizon bat erretzen ari dira. Behealdean, ordea, emakume bat ageri zaigu lurrean eserita, eskuak loturik dituen gizon bat makila moduko batekin kolpekatzen. Guda gatibuak torturatzea oso praktika orokorra da testuinguru beliko batean, baina honen ardura emakumeen esku erortzeak argi uzten digu akats bat dela emakumeak beti rol militar batetik aldentzea. Gure ustez, nahiko

---

<sup>38</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 57.

<sup>39</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 75.

<sup>40</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 70.

<sup>41</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 69.

<sup>42</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 60.

interesgarria da zutabearen irudikapen ia jarraietan daziar eta erromatar presoen egoera erakustea, bakoitzak dituen berezitasunekin. Hauen artean, nabarmenena, emakumeen partaidetza izanik (Dillon, 2006: 244-251).

### **5.3. Ondorio ekonomikoak:**

Halako kanpainia militar batek ondorio ekonomiko sakonak ditu. Are gehiago, planteatu daitezke gerraren helburuetako bat ekonomikoa dela, eta beraz, logikoki bide horretan ere zenbait ondorio izango ditugu. Ondorio hauen artean nabarmentzen dira bi aldeek eginiko inbertsio militar oso altua, armadak hornitzeko eta prestatzeko egindakoa hain zuzen, hauen eskutik emandako arpilaketak, batez ere garailearen eskutik emango direnak, azpiegituren suntsiketa, gehien bat daziar lurraldeak pairatu zuena eta amaieran emango den kolonizazioa, mekanismo menderatzaile eta ekonomiko bezala.

#### **5.3.1. *Gastu militarra eta azpiegituretako inbertsioa:***

Gudaren lehen ondorio ekonomikoa bi armadek egindako ahalegina izango litzateke. Izan ere, halako kanpainiak antolatzeak sekulako kostua zekarren. Honen adibidea genuke erromatar armadak zuen hornigai kontsumoa. Estimaten da, legio bakoitzak, egunero, 37 tona inguruko beharra zuela soilik elikagaietan, kontuan izan gabe lehena aipatu dugunez hau bikoiztu egiten zela legioak laguntzen zituzten auxiliar eta zibilen ondorioz. Zutabeak hau nolabait errepresentatzen digu kanpainien hasieretan, esanguratsuen 102. urteko kanpainiaren hasiera izanik (XXXIII. e.)<sup>43</sup> non soldaduak ontziak hornigaietz betetzen ari diren gudara abiatzeko. Irudi honetan enperadorea bera dugu prozesua zuzentzen portu erromatar batean, erdigunean anfiteatro bat eta estandarte erromatarrik ditugularik. Horrez gain, ekipamenduan eta logistikan egindako gastua ere izugarria zen, batez ere armamenduan eta nabigazioan inbertiturik. Honi gotorlekuen eta zubien eraikuntza gehitu beharko genizkie, Trajanoren zutabearen etengabe agertzen direnak (LXV. e.)<sup>44</sup> besteak beste, non soldaduak batez ere zuhaitzak mozten ari diren. Basoen ustiaketa hau bi helbururekin emango da. Batetik, eraikuntzarako propioki behar den lehengaia eskuratzeko eta bestetik, eraikuntza gunea prestatu ahal izateko (Lago, 2008:66).

---

<sup>43</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 58.

<sup>44</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 63.

### 5.3.2 *Arpilaketak:*

Aurki dezakegun bigarren ondorioa, zutabeak oso ongi azaltzen duena, erromatarrek gauzaturiko arpilaketa multzoarena izango litzateke. Kontuan izan behar dugu praktika oso ohikoa dela antzinateko gudetan garaileak garaituarengandik ordainsariak hartzea gerra kostuak ordaintzeko. Daziako Guda ez da honen salbuespen izango, zutabeak ongi erakutsiko digun bezala. Izan ere, monumentuak bi une nagusitan azaltzen digu praktika hau. Lehen, 102. urteko kanpainiaren bukaerari aipu egiten dion irudi batean ikusiko dugu (LXXVIII. e.)<sup>45</sup>. Erlieben agertzen den saria batez ere militarra da, daziarrei kendutako armak eta ikurrak erakutsiz. Hau, nagusitasun bat erakusteko teknika baino ez da, hegodun garaipenaren irudikapena bezala. Hala ere, zeharkako modu batean bada ere, aditzera ematen digu erromatarrek aurrera emandako arpilaketa gauzatu egin zela, daziarren desmilitarizazio batekin batera. Bigarrena (CXXXVIII. e.)<sup>46</sup> ordea, askoz ere esplizituagoa da. Hau, daziar hiriburua den *Sarmizegetusa Regiaren* erorketaren ostean kokatzen den eszena da, gudaren bukaeratik oso gertu. Bertan soldadu bat ageri zaigu Dezebaloren altxorra mando baten kargatzen<sup>47</sup>. Diogu oso ezplizitua dela, eszenako protagonista soldadu hori den bitartean, atzetik, jada kargaturik doazen beste hiru mando irudikatzen direlako, daramatzaten produktuek aberastasun maila nabarmen bateko ontziak eta bestelakoak direlarik. Irudi honek askoz ere argiago uzten digu arrapaketarako tendentzia hori, beste erromatar monumentuetan ere ikus daitekeena, Titoren arkuan besteak beste. Arpilaketa hau bi motatakoa izan zitekeen. Lehen, kontrolatua izango litzateke, seguruenik irudiak erakusten diguna. Kasu hauetan, jeneralak zuzentzen zuen ospilaren bereganaketa eta birbanaketa, zati bat soldaduen artean banatuz, beste bat berarentzako gordetzen eta azkena *aerarium*-era bideratuz. Bigarrena soldaduek beren kabuz egindakoa izango litzateke (García, 2007: 24-25). Arpilaketa hauen garrantzia hain da handia non Trajano gai izango den soilik harrapakinekin irabazitakoarekin bere foroa finantziatzeko eta guda gastuak ordaindu ahal izateko (Oltean, 2015: 12-18).

---

<sup>45</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 67.

<sup>46</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 74.

<sup>47</sup> Dio. 68.14.4.

### **5.3.3. Hiri eta gotorlekuen suntsipena:**

Gudaren beste ondorio ekonomikoetako bat azpiegituraren erabateko suntsiketa izango litzateke. Nekazaritza eta abeltzaintzan oinarritutako ekonomia batetan gudaren ondorioak oso larriak dira, lurrek sekulako kalteak pairatzen baitituzte. Hala ere, hau ez da azpiegituraren desegitearen eredu bakarra. Are gehiago deitzen digu atzentzioa egitura hauen hondamendi intentzionatuak, zutabeen lau modu desberdinetan errepresentatzen dena. Lehena izango litzateke erromatarrek, garaituei inposatutako egitura propioen ausiabatza, beranduago azalduko dugun arrazoiengatik emango dena. Hau oso argi ikusten da lehen aipatutako irudi batean (LXXVI. e.)<sup>48</sup>. Bertan, daziar batzuk ihesean daude eta beste asko behartuak dira haien gotorlekuak txikitzen. Ihesean dabilzan daziar hauen artean atentzioa deitzen diguna da erdialdean agertzen den gizona ume bat eskumuturretik heltzen duena indarrarekin tira eginez, honek egoera ulertuko ez balu bezala. Bestalde, gotorlekua birrintzen bi daziar ageri zaizkigu mailu edo antzeko tresnekin hesiak botatzen, atzekaldean biztanleria zibila begira dutela. Honen epe motzeko helburua, noski, daziarrek ahultzea da bigarren altxamendu hipotetiko baten aurrean gaitasunak murrizteko. Hiri eta gotorlekuen suntsiketaren bigarren errepresentazio mota da setioa bera, batez ere oso argi ikusten dena aurretiaz aipatutako irudi batean (CXIV. e.)<sup>49</sup> non setio makinekin hiria txikitzen ari diren. Hirugarren ereduak litzateke daziarrek berauek hiria erretzen dutenean, ez baitute nahi erromatar eskuetan eror dadin, lur-errearen praktika aplikatuz (CXVIII. e.)<sup>50</sup>. Eszena hau oso grafikoa da bost daziar ageri baitzaizkigu hiriaren gune desberdinetan lastargiak erabiliz hau sutan piztu ahal izateko. Azkenik, erromatarrek intentzionalki erretako eremuak edukiko genituzke, zutabearen azken irudietan (CLII. eta CLIII. e.)<sup>51</sup> ikusten direnak. Hauek daziarren hiri erreketaren oso irudi antzekoak izango dira, protagonistatzat legionarioak izanik (García, 2009: 68-73).

### **5.3.4. Kolonizazioa:**

Azken ondorio ekonomikoa kolonizazioa bera izango litzateke. Hau izan zen gudaren helburu nagusietako bat. Lehen azaldu dugun moduan, jada bi kanpainia nagusien artean hasi zen, baina bulkada gudaren bukaerarekin jasan zuen. Kolonizazio honen bitartez Erromatar

---

<sup>48</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 66.

<sup>49</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 71.

<sup>50</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 72.

<sup>51</sup> Ikus eranskinetan 8.2, oin oharra 77.



Inperioak daziar zonaldearen gaineko nagusitasun politikoaz gain, kontrol ekonomikoa eskuratu nahi zuen, ustiapen politika bati eusteko. Antolapen koloniala interes ekonomikoetan oinarritu zen, inperioaren ongizateari begira. Antolapenak, ordea, ez zuen kontutan hartu gudak biztanleengan ekarritako galera edo azpiegitura jakin batzuen suntsipena. Beraz, laburbilduz, esan genezake, fenomeno kolonial hau behar ekonomikoetan oinarritu zela, betiere inperioari begira eta ez daziar lurraldearen mesedetan (Soria, 2020: 9-11). Hau ikus dezakegu, batez ere, Trajanok lurralde konkistatuko meatzeen inguruan planteatu zuelako fenomeno kolonial hau, Erromarentzako materialak eskuratzeko helburu argiarekin (Villalobos, 2006: 42-44).

Ondorio ekonomiko hauek kontuan harturik, esan genezake, nahiz eta hasiera batean Inperioak inbertsio erraldoia egin behar izan arlo militarrean, epe motzean arpilaketekin hau arintzea lortu zuen, epe luzera Dazia bezalako eremu aberats baten onurak eskuratu zituen bitartean. Daziar lurraldeak, ordea, sekulako galera izan zuten, bai guda garaian, eta bai guda ostean geratutako azpiegiturekin. Hala ere, epe luzean, inperio barnean egoteak berreskurapen ekonomiko bat ekarriko du.

## **6. Konklusio orokorrak:**

Ikusi dugun moduan, Trajanoren kanpainiak sekulako ondorioak izan zituen erromatar eta daziar gizartean, baita eremu hauen paisaiaren eraldaketan eta erresumen zein bestelako sujeto politikoaren egituraketan. Aipatu beharra dago lanaren muinoa diren ondorio hauek ikuspuntu erabat moderno batetik eginda daudela eta guretzat gaur egungo balio eta pentsamoldeekin garrantzia daukaten ondorio edo ideietako askok, seguruenik, ez zutela inolako interesik testuinguru honetan parte harturiko kideei.

Prozesu jakin honen partikularitasunak alde batera utziz, Daziako Guda adibide paregabea da garai klasikoetako guden nondik norakoak ulertzeko, baita hauek izan zitzaketen ondorio krudelak ikusteko ere. Era are konkretuago batean nahiko informazio ematen digu Erromatar Inperioak zuen gaitasun militar eta batez ere diplomatikoaz, kontuan hartzen baditugu gudaren benetako arrazoiak eta aliatuen parte hartzea, baita *foedus*, estatu klientelar eta bestelako formulen erabilera ere. Aldi berean, I. mende bukaera eta II. mende hasierako Europa ekialdeko desegonkortasun politikoa eta aliantza sareak ulertzeko oso baliagarria zaigu gatazka hau.

Bestalde, lanaren ardatz moduan erabili dugun 113. urtean eraikitako Trajanoren zutabearen garrantzia berriro ere azpimarratzea beharrezkoa iruditzen zait. Arestian aipatu dugun moduan eraikin honek baditu zenbait arlo benetan interesgarriak izan daitezkeenak. Lehenengo eta behin lanean zehar komentatu ez dugun baina nolabaiteko garrantzia duen arlo estetiko artistikoa, erromatar garaiko erliebe multzo bikainena izanik. Bigarrenik planteatzen digun erronka konstruktiboa. Lehen aipatu dugun moduan, egun, ez dago argi zein baliabide tekniko zehatz erabili ziren halako zutabe erraldoia eraiki ahal izateko. Hirugarrenik, daukan balio sinbolikoa eta ideologikoa. Zutabeak ez du soilik daziarren aurkako garaipena goraiatzen, baizik eta Trajano enperadorearen handitasunaren erakusgarri izango da. Hau noski foroaren eraikuntzarekin bat emango da, foro inperialetan handiena izango delarik. Honi gehitzen badiogu Trajano *pomerium*-ean lurperaturiko enperadore bakarra izan zela, argi geratuko zaigu honen bereizketa nahia, beste enperadoreen gainetik geratzeko nahia, hain zuzen. Beraz, esan genezake zutabeak baduela helburu ideologiko bat, non Trajano eta Erromaren nagusitasuna erakutsi nahi den. Bestalde, eraikuntza mota honek sekulako berrikuntza suposatuko du, garaipen zutabeak lehenagotik existitzen baziren ere, gudaren nondik norakoak inoiz ez baitziren azaldu hauetan. Formula hau hain izango da interesgarria non historian zehar beste lider karismatikok imitatzen saiatuko diren, Trajanok egin zuen moduan beren burua handitzeko helburuarekin. Kasu entzutetsuenak izango lirateke Marko Aurelioren zutabearena (193) non germaniarren aurkako guda kontatzen den eta, hamazazpi mende beranduago, Napoleonen Vêndome plazako zutabea (1810), Austerlitzeko gudua azalduz. Bukatzeko, historialari moduan balioan jarri behar dugu ematen digun informazioaren aberastasuna, guda xehetasun maila ikaragarriarekin kontatuz, eta lehen mailako iturri erabat fidagarria izanez.

## **7. Bibliografía:**

### **7.1. Iturri literarioak:**

Duarte Sánchez, A.D. (Itzul). (2014), Casio Dion. *Historia Romana. Epítome de los libros LXI a LXX*, Murtzia.

Martin Iglesias, J.C. (Itzul). (2007), Plinio el Joven. *Epistolario (Libros I-X). Panegírico del emperador Trajano*, Catedra Letras Universales. Madril.

### **7.2. Gaur egungo bibliografía:**

Abascal Palazón, J.M. (1989): "Algunas observaciones sobre la participación Hispana en las Guerras Dácicas de Trajano", *Anejos de Gerión*. II. 345-356 or.

Dillon, S. (2006): "Women on the Columns of Trajan and Marcus Aurelius and the Visual Language of Roman Victory", Dillon, S. (Ed.); Welch, K. (Ed.) *Representations of War in Ancient Rome*. Cambridge. 244-271 or.

García Alonso, F. (2009): "¡Ay de los vencidos! Las consecuencias de la guerra protohistórica en la Península Ibérica", *Cypsela: Revista de prehistòria I protohistòria*, 16, 65-86 or.

García Riaza, E. (2007): "Tempus poenae. Represalias contra poblaciones sometidas durante la expansión romana en Hispania", G. Bravo R. González Salinero (eds.), *Formas y usos de la violencia en el mundo romano*, Madrid, 19-30 or.

Lago Marín, J. I. (2008): *Trajano. Las campañas de un emperador hispano*, Almena, Madril.

Lancaster, L. (1999): "Building Trajan's Column", *Journal of Archaeology*. Bol. 103, 3. 419-439 or.

Oltean, R. (2015): *Dacia. La conquista romana- Volumen I: Sarmizegetusa*. Radu Oltean. Bucarest, Errumania.

Oribe Pérez, C. (2019): "Trajano: mecenazgo arquitectónico como símbolo de poder imperial (98-117)", Holguera Cabrera, A. (Koord.); Prieto Ustio, E. (Koord.); Uriondo Lozano, M. (Koord.) *Coleccionismo, mecenazgo y mercado artístico: ámbitos europeo, americano y asiático*. Universidad de Sevilla, Secretariado de Recursos Audiovisuales y Nuevas tecnologías. 246-258 or.

Pensabene, P; Domingo, J.A. (2018): "Trajano y las canteras de granito del *Mons Claudianus* en Egipto: El transporte y puesta en obra de los grandes fustes monolíticos del foro de Trajano", *Veleia*, 35, 109-128 or.

Piris Chozas, J. (2011): “Trajano: Las Guerras Dacias”, *Ab Initio*, 2, 17-28 or.

Soria Molina, D. (2016a): *Las guerras dácicas de Trajano Antecedentes, desarrollo, geopolítica, estrategia y consecuencias*, Tesis Doctorala. Murtziako Unibertsitatea.

- (2016b): “La segunda Guerra Dácica de Trajano (105-106): Cambio y continuidad en la geopolítica de la Europa danubiana”, *Sautuola XXI*, 155-173 or.

- (2020): “Migraciones, deportaciones, colonización y geopolítica durante las guerras dácicas de Trajano (101-106 d.C.)”, *Revista de Estudios en Seguridad Internacional*, 6. bol, 2. 1-16 or.

Villalobos Martinez, A. (2006): “El imperialismo en Trajano (98-117 d. de C.): La guerra y los símbolos del poder”, *Revista de Historia*, 16. urtea, bol. I6 (1), 35-46 or.

### **7.3. Webgrafia:**

“Reading an Ancient Comic Strip”, National Geographic.

<https://www.nationalgeographic.com/trajan-column/index.html>.

Azkenekoz 2022eko maiatzaren 9an kontsultatua.

## 8. Eranskinak:

### 8.1. Mapak

52



53



<sup>52</sup> Mugak 101. urtean. (Soria, 2016a: 544)

<sup>53</sup> Mugak 119. urtean. (Soria, 2016a: 560).

## 8.2 Irudiak:

54



55



56



57



<sup>54</sup> VIII. e. Trajano sakrifizio bat zuzentzen.

<sup>55</sup> XVII. e. Trajano gatibu batekin.

<sup>56</sup> XXIV. e. Guda eszena.

<sup>57</sup> XXVIII. e. Trajano negoziaketa batean. XXX. e. Trajano emakume daziarrak ontziratzen. XXXI. e. Erromatarrak ihesean.



58



59



60



<sup>58</sup> XXXII. e. Daziarrak erromatar gotorleku bat setiatzen. XXXIII. Trajano 102. urteko kanpainiako preparakinak antolatzen.

<sup>59</sup> XL. e. Guda eszena. XLI. e. Erromatarrak ihesean.

<sup>60</sup> XLIII. e. Gatibu erromatarrak. XV. e. Emakume daziarrak soldadu erromatarrak torturatzen.



61



62



63



<sup>61</sup> LII.e. Trajano daziarrekin negoziatzen. LIII. Trajano sakrifizio bat zuzentzen.

<sup>62</sup> LVI. e. Erromatarrak kanpamentu bat eraikitzen. Daziarren buruak zintzilik.

<sup>63</sup> LXIV. e. Guda eszena. LXV. e. gotorleku baten eraikuntza.



64



65



67



68



68



- 64 LXVIII. e. Trajano gatibu batekin negoziatzen.
- 65 LXXI. e. Legionarioak testudo formazioan.
- 66 LXXVI. e. Daziarrak ihesean.
- 67 LXXVIII. e. Daziar garaikurrak.
- 68 LXXIX-LXXXIV. e. 104. urteko kanpainiako prestakuntza.



69



70



71



<sup>69</sup> LXXXVI. e. Trajano sakrifizio bat zuzentzen. Daziarrak parte hartzen.

<sup>70</sup> XC. e. Daziarrak erromatarrei harrera egiten. XCI. e. Trajano sakrifizio bat zuzentzen, daziar emakume eta umeekin.

<sup>71</sup> CXIV. e. Trajano setioa behatzen. Setio makinaren presentzia.



73



74



<sup>72</sup> CXVIII. e. Trajano errendizio bat onartzen. CXIX. e. daziarrak hiria erretzen.

<sup>73</sup> CXXII. e. Daziarrak ihesean.


<sup>74</sup> CXXXVIII. e. Erromatar soldaduen arpilaketa. CXL. e. Daziarren suizidioa.




75



76



77



<sup>75</sup> CXLV. e. Dezebaloren suizidioa. CXLVI. e. Dezebaloren familiaren atxiloketa.

<sup>76</sup> CXLVII. eta CXLVIII. e. Daziarren atxiloketak.

<sup>77</sup> CLII. eta CLIII. e. Erromatarrak hiria suntsitzen. CLIV. eta CLV. e. Daziarrek eta haien abereak Dazia uzten.